9. FITXA

IZENA:__________________________ DATA:_________ **MIKEL KIROLARIA.**

Mikel kirolari amorratua da. **Beti** dabil leku batetik bestera kirola egiten. Kaletik ikusten dugunean beti dago kirola egiten.**Batzuetan** futbolean dabil, **beste batzuetan** saskibaloian.**Askotan** patinez espaloietatik abiadura biziaz ibiltzen da. Eskolako patiotik ere patinez mugitzen da. **Gutxitan,** espaloitik oinez joaten da. **Gaur** kalean Shilinekin aurkitu da eta agurtu egin dio:

- Kaixo Shilin! Bazatoz eskolara!- esan dio Mikelek.
- Bai, zurekin noa!-dio Shilinek-Baina **gaur** zeren gainean zabiltza, Mikel ? Zer da tramankulu hori?-galdetzen dio Shilinek.
- Hau! Goitibehera da ! – erantzuten du Mikelek.
- Ai, Mikel! Zu beti gurpilen gainean!- esaten dio Shilinek.

81- Borobildu erantzun zuzena:

- Mikel........................................... da.
    - kirolaria
    - margolaria
    - dendaria
- Mikelek .... .............egiten du.
    - marrazkia
    - kirola
    - janaria
- Mikel.........................................doa.
    - menditik
    - hondartzatik
    - kaletik
- Mikel...........................................dabil.
    - oinez
    - trenez
    - patinez
- Shilinek..........
    - Sorpresa hartu du.
    - Sustoa hartu du.
    - Harritu egin da.

82- Borobildu bai ala ez.

- Mikel kirolari amorratua da.
  BAI EZ
- Shilin patinetez dabil.
  BAI EZ
- Mikeli kirola egitea gustatzen zaio.
  BAI EZ
- Mikel patinez hondartzatik dabil.
  BAI EZ
- Mikel eskolako patiotik patinez dabil.
  BAI EZ

83- Nolakoa da Mikel ?

Mikel____________________________________________________

84- Zer gustatzen zaio Mikeli egitea?

Mikeli____________________________________________________

85- Nola ibiltzen da Mikel espaloietatik patinez?

Mikel patinez____________________________________________

86- Mikel askotan joaten da oinez kaletik?

Mikel____________________________________________________

87- Zeren gainean doa gaur Mikel eskolara?

Gaur____________________________________________________

88- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

____________________________________________________________

____________________________________________________________

89- Hurrengo esaldiak osatu:

- Mikel __________________________ da.

  (kirolaria, dendaria, irakaslea)

- Mikel eskolara__________________doa.

  (patinez, oinez, kotxez)

- Mikel ________________________________dabil.

  (kamioi gainean, mahai gainean, patinen gainean)

90- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

egin kalean da agurtu Gaur dio Shilinekin aurkitu eta

__________________________________________________________